



## **Laudioko EAJko Udal Taldea**

PRENTSA OHARRA

### **- 2012-2013 kurtso politiko berria Laudion-**

Beste hainbatetan jakinarazi dugun moduan, eta Ezker Abertzaleak sistematikoki egin ez duen bezala, laudioarren interesen alde lan egiteko ekintza politiko arduratsuan eta oposizio eraikitzailean, positibistan eta ez- oztopatzailean oinarritutako bidea badela uste dugu.

Hamaikagarrenez, Laudioarentzako landutako eta adostutako proiektu estrategikoak egite aldera, gure lankidetzak eskaintzen diogu BILDUri, gure herriaren erabateko geldiarazpena ekiditeko xedearekin.

Laudioko EAJ-PNVk egungo BILDUren gobernu taldeari gure laguntza proposatu eta eskaintzen diogu, hurrengo ildo hauetan:

- 1- Formakuntza eta Enplegua:** EAJ-PNVk, udal eskuduntzen ildoan, Laudioko langabetuei bideratutako eta LHUIarekin eta Garapen Agentziarekin koordinatutako formakuntza eta enpleguarako plan bereziak garatu eta bete daitezela proposatzen du.
- 2- Merkataritza, Ostalaritza, Zerbitzu Sektorea eta Enpresa Txiki eta Ertainak (ETE):** BILDUren gobernu taldeari, Garapen Agentzia, gure udalherriaren eta Aiara eskualdearen sustapen ekonomikorako jarduerak burutzeko eragile nagusi gisa, beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide materialez horni dezala, egungo krisi sakona ahal den neurrian arintze aldera.
- 3- Plan Nagusiaren berrikuspenera:** EAJ-PNVk, urgentziaz eta berehala, Hiri Antolamendurako Plan Nagusia berrikusteko lanei berriro ekin diezaiela eskatzen dio BILDUren gobernu taldeari.
- 4- Etxebizitzak Goikoplazan:** EAJ-PNVk Goikoplazan sustapen publikoko etxebizitzak eraikitzeke, bertako plan partzialaren aurretiazko beteharazpena has dezala proposatzen du. URArekin hitzarmena sinatu eta, era berean, Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren aurrerapen gisa, Birkokapen Plana erredakta dezala, urgentziazko izaeraz.
- 5- Ugarteko biribilgunea:** EAJ-PNVk proiektu hau martxan jar dadila proposatzen du edo edozein kasutan, bideragarri eta exekutagarriak diren alternatibak bila ditzala, Ugarte- Goienuriko trafiko arazoak behin betiko konpontze aldera.



## ***Laudioko EAJko Udal Taldea***

**6- Udal erabilera anitzeko aretoa:** BILDUren gobernu taldeari dei egiten diogu, Altzarrateko erabilera anitzeko proiektuaren alternatibatzat jo daitekeen adostutako proiektu landu bat aurkez dezan, audioar guztien onurarako bideragarria izan dadin, noski.

Azkenik, EAJ-PNVk beharrezkotzat jotzen dugu BILDUren gobernu taldeari oinarrizko bi ildo hauetan jardun dezan deialdi berri bat egitea:

- **GIZARTE ONGIZATE ESPARRUAN:**

Egungo krisi egoeran gure proposamena berresten dugu:

- Erroldatzeen erregularizazioa.
- Udal laguntzen kontrol eta jarraipena.
- Garapen bidean diren herrialdetarako laguntzak behinik behin bertan behera uztea.

- **SEGURTASUN ESPARRUAN:**

BILDUK “alarmista sozialtzat” bagaitu ere, egoera oso kezagarria dela uste dugu. EAJ-PNVko kideek prebentzioari begira Udaltzaingoen lana funtsezkoa dela uste dugu.

Era berean, EAJ-PNVk beharrezkotzat jotzen dugu gai honetan etengabeko koordinazio bat eman dadila SEGURTASUN MAHAIAREN bitartez, hiritarren segurtasunik ezak izan duen gorakada aztertze aldera.

**LAUDIOko EAJ-PNV**